

Leoka garbitokia

Etxeetan urik eta, noski, garbigailurik ere ez zegoenean, garbitokietara joan behar izaten zen arropa garbitzera. Eta garbitokiak berak baino ere lehenago, ibaiak eta errekek erabiltzen ziren lan gogor-gogor hartarako, eta normalean emakume oso pobreek egiten zuten, bizitzeko beste baliabiderik ez zutenek. Hernanin Leokako garbitokia zen garrantzitsuenetakoa.

Arropa garbitzaileek beste etxe batzuetarako egiten zuten lan, beren etxeko arropak garbitzeaz gain. Arropa pieza bakoitzeko kobratzen zuten, eta haien ardurapean zegoen arropak ez hondatzea. Jabeen etxean bertan jaso zezaketen arropa edo jabeek eurek garbitzaileengana eramane zezaketen. Hernaniko alde zaharreko Andre kalean arropa garbitzaile asko bizi omen zela esaten da eta arrazoi horrekin lotzen dute batzuek Andre kale izenaren arrazoia. Behin arropa bilduta, garbitokiraino edo errekaraino garraiatzen zuten, eta han igurzten eta garbitzen zuten, ur izoztutan zenbaitetan, eskuak guztiz hondatzeraino, ospelez beterik; beste zenbaitetan, eguzki goxoagoaren azpian. Gero, eguzkitan lehortzen uzten zituzten arropak, zuritzeko. Ondoren, etxeetara itzultzen zituzten arropak, hurrengo neskamea etorri arte, jostuna (zerbait konpondu behar bazen) edo plantxatzailea. Batzuetan etxeko neskame bat izaten zen, eta beste batzuetan, kanpoko bat. Edonola ere, fisikoki oso lan gogorra zen hura ere.

Baina garbitokia emakumeen gune bat zen. Han, emakumeak, asko eta asko neskameak, elkartu egiten ziren, sozializatu, beren etxekoandreen kontuak kontatzen zizkioten elkarri, edota politika egiten zuten.

Leoka garbitokia Elizatxo auzorako jaitsieran dago. 1538an eraiki zuten lehen aldiz iturriaren inguruan, eta 1664an eraberritu. Gerora, hainbat esku-hartze izan ziren, 1728 eta 1896 urteetan, egungo garbitokia 1916an eraiki zen arte.

Hainbat urtez emakumeen lanleku eta topaleku garrantzitsu izatetik, abandonatua izatera pasatu zen. 2000. urtean Langile ikastolako ikasle, irakasle eta langileek espazioa garbitu eta bere historia jaso zuten. Ondoren, garbitzaileen lan gogor eta inbisibilizatua omentzeko Berdintasun Kontseiluak hartu zuen eraikin xume hau zaindu eta gordetzeko testigua eta, Leoka emakumeentzat berreskuratuz, Jabetze Eskolei hasiera ematen zaie bertan urtero.